

ENPRESAGINTZAKO NEGUKO BARNE TXAPELKETA

ARETO FUTBOLA

- Guztiek guztien aurka jokatuko dute.
- Finala partidu bakarrera jokatuko da, eta irabazlea txapelketako irabazlea izango da.
- Baloiak campuseko harreran eskatu behar dira; amaitzean, berriz, bertara itzuli.
- Partiduko irabazlearen ardura izango da emaitza kirol zerbitzura idaztea.

SARIAK:

- Bi sari irabaziko dira:
 1. Mondragon Unibertsitateko kirol txapelketan jokatzeo aukera (otsailean).
 2. Enpresagintzako areto futboleko txapelketako talde irabazlearentzat 20€/partaideko saria izango da. Saria ondorengo eratan jasotzeko aukera egongo delarik: Forum Sport kirol dendetan erosketa balea edo pertsonako 20€ko balio duen afari bat.
 - Saria ez da inoiz dirutan emango.
 - Sariak pertsonalak eta trukaezinak dira.
 - Txapelketako izenemate-orrian agertzen diren pertsonak bakarrik jaso ahal izango dute saria (10 pertsona gehienez. Gehiago baleude ere, 200 € jasoko lukete gehienez).
 - Talde kiroletan, partaide guztiek sari hautaketa berdina egin beharko dute.

ARAUTEGIA

1. Espazioa: Kantxa osoan jokatuko da.
2. Taldearen osaketa: Taldeak gutxienez bost jokalariz osatuta egongo dira.
3. Aldaketak: Momentu oro taldeko bost jokalarik jokatuko dute. Nahi beste aldaketa egin daitezke, beti ere, jokoaren etenda dagoenean.
4. Txapelketaren puntuazioa: Irabazitako partidak hiru puntu balioko ditu, eta galdutakoak zero. Berdinketak, berriz, 1.
6. Partiduaren irabazlea: 25 minutuko bi zati amaitzean dagoen emaitza.
7. Partiduaren hasiera: zozketa egingo da, bai zelaiarena, baita ere sakearena.
9. Epailea: ez da epailerik egongo, beraz, faltak norberak adieraziko ditu.
10. Faltak: Faltak jasotako lekutik aterako dira, eta ez da "doble penaltirik" egongo.
11. Emaitza: partiduaren emaitza talde irabazleak Kirol Zerbitzuari jakinaraziko dio. Berdinketa kasuan, kapitainek adostuko dute.